

People first language: **hizkuntza politikoki zuzena** **elbarritasunaren aurrean**

Melania Moscoso Pérez

Soziologian doktorea eta Antropologian lizentziatua. CSICeko Filosofia Institutua

Artikulu honek *People First Language* delakoa aztertzen du, hau da, elbarritasunari buruz aritzeko erabiltzen den hizkuntza politikoki zuzena. *People First Language*ren arabera, ezgaitasun edo ezintasunez hitz egin edo idaztean, «elbarritasuna duen pertsona» ideia hobesten zaio «elbarri» molde soilari, bigarrenak ezgaitasuna duen pertsonari gizatasuna kendu eta haren mugak baino adierazten ez dituelakoan. Azken urteotan *queer* teoriak kritikatu egin du hizkuntza politikoki zuzena, aldaketa lexikoaren azpiko aurreiritziak bere horretan uzten dituelako, eta ez duelako irakurle eta irakasleen erosotasunaren mesedean baino jokutzen.

GAKO-HITZAK: Elbarritasuna · Hedabideak · Politikoki zuzena den hizkuntza · *People first language*.

People first language: political correctness when speaking about disability

People First Language refers to the practice of referring people with disabilities this way as to prevent the dehumanization resulting from the use of expressions such as handicapped, challenged or disabled. However this politically correct way to address disability can be contested from a *queer* point of view, that purports that it serves better to protect teachers and readers from their own prejudices.

KEY WORDS: Disability · Disability Studies · Mass media · People first language.

Jasotze-data: 2011-07-23. *Onartze-data:* 2012-02-08.

O. Sarrera

Hedabideetan eta erakunde publikoetan ohiko bihurtu zaigu hizkuntza politikoki zuzena, emakumeak, etorkinak eta beste gizatalde gutxietsi batzuk ez baztertzeko asmoz. Emakumeen kasuan, hizkuntza politikoki zuzenak aurre egiten die androzentrismoari —gizona gauza guztien neurri eta ardatz gisa erabiltzeko joerari— eta sexismoari —sexu bakoitzak berezko balio, trebetasun eta rolak dituen usteari— (EMAKUNDE, 1988: 8). Gutxiengo etnikoen kasuan, hizkuntza politikoki zuzenak saihestu egingo du etnizitate jakin bati ezaugarri moral edo intelektualak atxikitzeko joera, hau da, ez die ijitoei ijito izate hutsagatik inolako ezaugarri moral berezirik esleituko.

Azken urteotan, eta batez ere herrialde anglosaxoietan, indarra hartu eta finkatu egin da elbarritasunari buruzko hizkuntza politikoki zuzena. Hizkuntza horrek elbarritasuna duen pertsonon duintasuna eta gizatasuna indartu nahi ditu; batez ere elbarriok (gu geu), pertsonak garela azpimarratu nahi du, gure ezintasunak alde batera utzita. Hori dela-eta, «elbarritasuna duen pertsona» esamoldea hobetsi du. Joera horren sorterrian, AEBn, *People First Language* esaten diote elbarritasunarekin erabiltzen den hizkuntza politikoki zuzen honi: ingelesez, pertsona lehen lekuan jarriaz elbarriok ezer baino lehen pertsonak garela markatzen dute.

Artikulu honetan *People First Language*ren (PFL) mugak aztertuko ditugu. Pertsonak beste ezereen aurretik jartzeaz kezkatzen den arren, elbarritasuna bigarren mailako ezaugarri huts gisa tratatzen duenean elbarritasuna dugun pertsonak gutxietsi egiten gaituela frogatzen saiatuko gara, horrekin bereizketa bat egiten duelako pertsona izate hutsagatik dagokigun gizatasunaren beraren eta norberaren inguruabarraren artean (Aristotelesen arabera, substantziaren eta akzidentearen artean, hurrenez hurren).

Lehen atalean *People First Language* zer den eta zein helburu dituen azalduko dugu. Bigarrenean, berriz, *People First Language*ren tranpak aztertuko ditugu, bi adibideren laguntzaz: alde batetik ONCEn iragarki bat, eta bestetik *Guía para un uso no discriminatorio del lenguaje en las mujeres con discapacidad* argitalpenetik ateratako ale bat. Biek ala biek, *People First Language*ren konbentzioetara moldatuta, elbarritasuna «tragedia pertsonala» den mezua islatzen dutela proposatuko dugu. *Queer* teoria hartu dugu horretarako inspirazio-iturri.

Hasi baino lehen, zenbait terminoren alde egin dugun hautua azaldu nahi genuke. Orotan, «elbarri» aukeratu dugu, gaiaren inguruko dokumentazioan gehien agertzen dena errespetatu nahian. Aldiz, gurariak zuzentasun politikoa adierazi nahi izan dugunean, «ezgaitasun» erabiliko dugu. Estilo aldetik, artikulu osoa *n̄tik* idatzita dago; Donna Haraway-ri jarraiki, eta aukera kontziente eta ideologikoa eginik, artikulu hau¹ «ezagutza kokatu»tik (Haraway, 1996)² (*Situated Knowled-*

1. Artikulu hau *Los límites del principio de precaución en la praxis ético-jurídica contem-poranea* (Erref.: FFI2011-24414) izeneko proiektupean egina dago.

Euskaldun berria izanik, egileak eskerrak eman nahi dizkio Mario Unamuno Plazaolari lana zuzentzeagatik. Eskerrik asko Mario!!!!!!

2. Hona Donna Haraway-k ematen duen ezagutza kokatuaren definizioa: «*A doctrine of embodied objectivity that accommodates paradoxical and critical feminist science projects*». Eskuragarri esteka

ges) idatzita dago, egilea bera, alegia, ni neu, elbarria baita. Ezagutza kokatua objektibotasun haragi bihurtuari buruzko doktrina da, norberaren bizi-egoera aintzat hartu, eta hura osatzen duten paradoxa eta konplexutasunen berri emanaz, ez objektibotasunari muzin egiteko asmoz, baizik eta norberaren bizi-egoeraren onespén zintzo gisa.

1. Pertsona beste ezeren aurretik: zer da *People First Language* delakoa?

«Ezgaitasun» hitzari darion gutxiespen-kutsua ezabatzeko asmoz, Amerikako Estatu Batuetako hedabideetako profesionalak elbarritasunari buruzko hizkuntza politikoki zuzena finkatu dute —*People First Language* alegia—, zeinaren arabera pertsona jakin bat elbarria dela adierazteko «elbarritasuna duen pertsona» moldea erabili behar den, eta ez «elbarri» soila. Hau da, ezintasuna aipatu baino lehen, argi eta garbi utzi behar da ezintasuna duen pertsona «pertsona dela»; hori lortzeko «elbarritasuna duen pertsona» perifrasi erabiltzea proposatzen dute *People First Language* korrontearen aldekoek. Horren haritik, eta elbarritasuna duen pertsonaren duintasuna eta gizatasuna indartzearen alde, «itsu» beharrean «itsua den pertsona» esan behar da, nolabait, elbarritasuna duen pertsonaren errealitatea ez dela bere ezintasunera mugatzen agerian uzteko. Azken urteotan gure artean ere zabaltzen ari da joera hori, gero eta gehiago hobesten da «elbarritasuna duen pertsona» moldea estilo-liburuetan eta beste dokumentu batzuetan (Frutos eta Rodriguez, 2007). Hauxe irakur daiteke horietako batean: «Ezgaitasunak dituzten umeak, ezer baino lehen, ume dira»³ (Snow, 2005: 3). Orrialde bat aurrerago ere honakoa dator: «Pertsona aurrean jartzen duen hizkuntza ez da zuzentasun politikoaren isla, gizalege eta errespetuarena baizik. [...]. Hizkera honi esker elbarritasunari buruzko pentsaera berri bat zabalduko dugu. Horrekin batera, elbarritasunak dituzten umeen eta helduen bizitzak hobetuko ditugu, gu geu eta gure mundua aldatuko dugu (Snow, 2005: 4).

Eskertzekoa da, inondik ere, errespetua eta gizalegea erakustea, orain arte erabili izan diren hitzak («maingu», «herren», «tontolapiko», «ergel» eta abar) iraingarri egiten zaizkigu, eta perifrasi horrek alde batera utzi ditu. Hala ere, susmagarri egiten zait «pertsona aurrean» (*People First*) jartzeko tematu behar hori. *People First Language*ren aldekoek «*We are not our disabilities*» ('Gu ez gara gure elbarritasunak') aldarrikatzen dute. Eta arrazoia eman behar zaie: pertsona eta ezgaitasuna ez dira bereizezinak. Hala ere, Kathie Snow-ekin batera, *People First Language*ren baitako eztabaida semantikoek estereotipo negatiboak gainditzen lagunduko ote diguten galdetu beharko genioke geure buruari.

Hitzek ez dute errealitatea aldatzeko ahalmen handirik atzean dituzten aurreiritziek beren horretan dirauten bitartean. Pentsaera berri bat sortu nahi baldin badugu, agian *People First Language*aren azpiko antinomia desegin beharko dugu. Hau da, *People First Language*ri atxikitzen dizkiogun gizatasuna, autonomia eta autorrealizazioa batetik, eta ezgaitasunarekin —*with disabilities*— lotzen dugun

honetan definizioaren iturria:

<<http://www.staff.amu.edu.pl/~ewa/Haraway,%20Situating%20Knowledge.pdf>>.

3. Honela dio testuak: «*Los niños con discapacidades son niños, antes que nada*». <<http://www.sccoe.org/programs/inclusion-collaborative/docs/Spanish.pdf>>.

zorigaitzaren konnotazioa bestetik. Gauzak horrela, ez genuke zertan pertsona aurrean —*People First*— ipinirik, askotan gizatasuna eta elbarritasuna batera doazela geureganatuko genuke, nahiz eta bereizpen analitikoak egin ahal izan.

Elbarritasuna: zapalketa kontua

NBEren arabera, 600 milioi lagunek baino gehiagok daukagu elbarritasunaren bat munduan (ONU, 2010: 17), horietako 3,5 milioi Estatu espainiarrean bizi dira (INE, 2008); soilik EAEn 150.000 lagun. Emakumeen ostean, elbarriok osatzen dugu gizatalde baztertu handiena, ugariena. LANEren 2008ko txostenaren arabera, langabezia % 80koa da elbarritasunen bat daukaten pertsonen artean. Elbarritasunik ez daukaten emakumeekin alderatuta, elbarritasunen bat daukagun emakumeon artean eraso sexualak edo tratatu txarrak pairatzeko aukera zortzi bider handiagoa da (Sobsey, 1994). Hala ere, gutxitan entzuten da elbarritasuna zapalketa kontua dela, gehienetan elbarritasuna duen pertsonari leporatzen zaio bere egoera, azken finean elbarritasuna «tragedia pertsonalaren» prisma ikusten baita. Begien bistan da medikuntzak, gizarte-zientziek eta filmek ezgaitasunekin bizitzea «merezi ez duen bizitza»⁴ bizitzea dela esaten digutela; Estatu Batuetan honela diote: «*Fate worse than death*» ('Patua heriotza baino gaiztoagoa').

Foucault-i kasu egitera, zorigaitzozko ikuspegi hori «garai klasikoan»⁵ sortu zen, hau da, XVIII. mendearen bigarren erditik XIX. mendearen amaierara bitartean (Foucault, 1984). Ordura arte, elbarriak eta zoroak eskale ziren, besteen errukiaren kontura bizitzea ez zegoelako gaizki ikusita. Sekularizazioaren eta protestantismoaren zabalkuntzaren bidetik, alferkeria eta pobrezia bekatu bilakatu zituzten, ilustrazio garaiko bekatu nagusiak alegia. Karitateak kutsu erlijiosoak zuelarik, orduko estatuek (Foucault-ek XVIII. mendeko Frantziako kasua ikertu zuen) karitatetik bizi zirenak —elbarriak eta eroak— lan egitera behartu zituzten: polizia horretarako erabilia, kaleetan limosna eske zebiltzan itsu, zoro eta herrenak erruki-etxe eta bestelako babes-etxe batzuetan gorde zituzten⁶. Foucault-ek «Giltzaperatze handia» (*le Grand Renfermement*) izendatu zuen prozesu hori. Gerxoego, XIX. mendean, medikuek «funtzio politikoa» hartuko zuten: ezberdintasun nabariak zituzten gorputzak patologikotzat jo eta ospitaleetan eta asilo terapeutikoetan gordeko dituzte, sendatzeko (Foucault, 1980)⁷.

Elbarrion eskubideen aldeko mugimendu sozialak (AEBn DRM edo *Disability Rights Movement* delakoak) «medikuntzaren eredu» izendatu du ikuspegi hori. Sendagintzaren ikuspuntutik, elbarritasuna duen pertsona *gaixoa* da, *sendatu* beharreko pazientea beraz. Hortaz, medikuntzaren ereduak errehabilitazioa du ardatz eta helburu, eta osatzerik ez denean, *normalizatu*⁸ egin behar da ahal den

4. Estatu Batuetan esaten den bezala: «Fate worse than death».

5. «Itxialdi handiaren» kontzeptuari buruz gehiago jakiteko, ikus Foucault, 1991.

6. Gure artean Paco Vázquezek ikertu du garai hori. Ikus bere Vázquez García, F. (2009): *La invención del racismo: nacimiento de la biopolítica en España, 1600-1940*, Akal Ediciones, Madrid.

7. Bereziki interesgarria da bigarren kapitulua.

8. Normalizatzeari buruz, ikus nire artikulua: "La normalidad y sus territorios liberados", *DREIA Dilemata: Revista internacional de éticas aplicadas*, 1, (1. urtea), 57-70, Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Madrid, <<http://www.dilemata.net/revista/index.php/dilemata/article/viewArticle/5>>.

neurrian. Hori ere ezin denean, psikiatrikoetan edota bestelako instituzioetan gordetzea proposatuko du medikuntzaren ereduak.

DRMk *eredu soziala* kontrajartzen dio medikuntzaren ereduari. Eredu sozialaren arabera, emakumeen zapalkuntza eta arrazismoarekin gertatzen den bezala, elbarritasuna ere opresio kontua da.

2. Jarduera politikoki zuzenak, eta horien azpian dagoen idatzi gabeko hitzarmena

Orain arte *People First Language*ren zentzua eta nahia aztertu ditugu. Segidan, nola hizkuntza ez-sexistaren konbentzioak, hala *People First Language*, ezgaitasunaren auzia behar bezala konpontzeko biak ala biak antzu geratu direla ikusiko dugu, bi adibideren analisiaren bitartez. Bata *Guía para un uso no discriminatorio del lenguaje en las mujeres con discapacidad* argitalpenetik aterata dago, eta, bestea, 2007ko ONCEren iragarki bat da; bietan zorigaitzaren mezua azaltzen da, nahiz *People First Language*ren eta hizkuntza ez-sexistaren konbentzioetara moldatuta dauden.

CRMFk plazaratutako *Guía para un uso no discriminatorio del lenguaje en las mujeres con discapacidad* argitalpenak hainbat gomendio ematen ditu emakume elbarri irudia gizartean hobetzeko. Besteak beste, *discapacitado* generikoa erabiltzearen desagokitasuna aipatzen du, kolektiboko % 58 emakumeak direlako; horren saihesbide gisa *personas con discapacidad* erabiltzeko aholkua ematen du. Bestalde, espresio desagokiak aurkitzen ditu egunkarietako titularretan, esaterako, ondorengoa: «*Los padres de las personas con parálisis cerebral son una lección de superación*». Kazetariak garun-perlesiadun pertsonak —«*las personas con discapacidad*»— erabili duen arren, esaldian konpontzeko aurkitu duen gauza bakarra 'aiten' —«*los padres*»— lekuan gurasoak —«*los padres y madres*»— jartzea da. Agidanez, inork ez dio erreparatu gairiditze pertsonal horren kutsu melodramatikoari, inplizituki esaten ari baita garun-perlesia gairiditu beharreko ezbeharra dela.

«Garun-perlesiadun haurra» esapidea neutroa den arren, ezgaitasun hori tragedia modura ulertzen dugu oraindik ere; *-dun* atzizkia erabili arren, ezgaitasuna pertsonari gertatutako ezbeharizat hartzen dugu beti, eta itzulinguru semantikoe-tara jo beharra sentitzen dugu, *bi errealitateak nahas ez daitezten*. Badirudi pertsona ezgaitua haurra, emakumea edo gaztea dela zehazten dugunean, alde batera uzten ditugula —sorginkeria bidez bezala—, ezgaitasunekiko aurreiritzi negati-boak; *haur, emakume edo gazte* izateak ezgaituei berezkoa ez duten *gizatasuna* emango balie bezala.

Agian ageriago islatzen du esan nahi dudana 2007an Espainiako Itsuen Erakundeak (ONCEk) ateratako iragarki batek, zeinaren bidez ezgaituak lan-munduan sartzea sustatu nahi zuen ONCEk. Hauxe zioen lan-jantzia zeraman gizon gazte batek: «Lehen ezgaitua baino ez nintzen; orain prozesu-kontrolatzai-lea naiz». Ondoren, honako azalpen hau ematen zuen *off* ahots batek: «Espai-niako Itsuen Erakundeak hainbat lanpostu sustatu ditu ezgaitasunak dituzten pertsonentzat».

Gazteak lehen ezgaitua baino ez zela esatean, gizarteak ezgaitasunari buruz duen imaginarioko hainbat ideia datozkigu burura: mendekotasuna, ezerezean galdutako bizi-egitasmoak, mina eta bazterketa. Gurrpil-aulkietan dauden pertsonak, itsuak, garun-paralitikoak edo Down sindromedunok kalera irteten gara, lan egiten dugu eta familiak ditugu, baina aldaketa horiek oso poliki ari dira barneratzen kontzientzia kolektiboan, polikiagi. Izan ere, arreta gehiagoz aztertuz gero, esaldiaren konnotazio patetikoa «ezgaitu» hitzean dagoela ikus dezakegu. Iragarkiko gaztea ezgaitua zen lehen, ez besterik. Prozesu-kontrolatzailea denez geroztik, baina, gizatasuna irabazi du, herritar bihurtu da.

*People First Language*ren aldekoek ezgaitua, beste ezeren gainetik, pertsona dela argudiatzen dute. Argudio laudagarri horrek, baina, ez du arazoa errotik aztertzen, arazo hori ez baita ezgaituarena, ezgaitasuna duena pertsona ez dela uste duenarena baizik. Portaera hori minigonari buruz izandako hainbat eparekin pareka dezakegu, zeinen arabera minigona aukeratzea den erasoaren arrazoia; hizpide dugun kasuan ere, ezgaituen gain dago perifrasiaren karga. Eta perifrasi, hain zuzen, gure gizatasuna onartzeko zailtasunak dituztenei zuzenduta dago; pertsona horiei gure gizatasun erabatekoa ez baitzaie, nonbait, behar bezain nabarmena iruditzen. Baina azter ditzagun sakonago hizkuntza politikoki zuzenak praktikan dituen ondorioak. «Ezgaitasuna duen pertsona» esapidea erabiltzeak pertsona horren gizatasuna onartzea baldin badakar, eta «ezgaitu» hitzarekin horrelakorik gertatzen ez bada, ba al da alderik dezgaitasuna duen pertsona batek dituen aukeren eta aipatu dugun ONCEn iragarkiko protagonista bezala ezgaitua baino ez den pertsona baten aukeren artean?

Nik neuk, elbarri naizen honek, ezetz esango nuke. Izan ere, hizkuntza politikoki zuzenak eskaintzen digun aukera bakarra gezurrezkoa da, alegia, ezgaitasunik izango ez bagenu bezala jokatzeko. *People First Language* «Ni ez naiz ezgaitua, nire hanka bat bestea baino motzagoa da» esateko aukera ematen die ezgaitasun nabarmenegia ez duten guztiei. Baina ezgaitasunari uko egin edo disimulatzen saiatzeak, hori lortzeak, ez du esan nahi ezgaitasuna desagertzen denik, ezgaituok eta gure ingurukoek ondo dakigun bezalaxe. Lortzen den gauza bakarria integrazioaren kostu guztiak ezgaituon gain uztea da, hori baino ez.

Hizkuntza politikoki zuzenak ez du esanahi erretorikoa baino. Maila analitikoan, kontzeptu aldetik, gizatasuna eta elbarritasuna berezitu egin daitezke. Badaude gure artean elbarritasun gabeko hainbat lagun. Hala ere, horrek ez du esan nahi gizatasunak eta elbarritasunak elkar ukatzen dutenik. Gizartean bada pertsona elbarririk, baina horrek ez du pertsona akastunak direnik esan nahi, baizik eta gizatasunaren kontzeptuak berak kanporatu egin dituela hainbat pertsona. Sasipertsonak ez garela jakinarazteko *People First Language*ren aldekoek perifrasi erabiltzen dute, baina horren bidez ez dute gizatasunaren azpiko kontzeptua ukitzen. Konponketa analitikoak kontzeptu mailan egin behar dira, baina *People First Language* bere horretan uzten du gizatasunaren kontzeptua, zeinak, bere aldetik, elbarritasuna kanpo uzten duen, eta perifrasi erantzten dion. Generoaren kasuan, «emakume» hitza erabiltzen dugu, eta ez «sexu femeninoa duen pertsona» esamoldea; beraz, argi dago genero-indarkeria arazo soziala dela eta arazo horri irtenbide sozialak eman behar dizkiogula; etniarekin gauza bera gertatzen da, inork ez du esaten «ijitoa den pertsona». Etnia edo generoaren

kasuan diskriminazioa agerian azaltzen denean, ezgaitasuna pertsonaren «ezaugarri soiltzat» hartuz gero, edozeini gerta dakiokkeen zerbait balitz bezala, zail gertatzen da ezgaitasuna mobilizazio edo aldarrikapenen iturri bihurtzea. Elbarritasuna, beraz, gizatasunaren mamiaren kontrakoa balitz bezala tratatzen dute PFLren aldekoek, eta horregatik hartzen dute «elbarri» hitza soilik iraintzat. Gauzak horrela, geure buruari noren arazoa den galdetu beharko genioke, elbarriona ala elbarriok pertsona osoak ez garela uste dutenena?

Hizkuntza politikoki zuzena erabiltzeak galarazi egiten du ezgaitasunaren gaia politizatzeako aukera. Elbarria «ezgaitasuna duen pertsona» bilakatzen dugunean, —edo, ONCEren iragarkiari jarraituz gero, prozesu-kontrolatzaile bihurtzen dugunean—, «ezgaitasun» hitza gupidaz erabiltzeako aukera ematen diegu ezgaituei; hau da, «ezgaitua baino ez denarekin» errukitzeko. Sarritan, beste elbarri batzuekiko gupida eta «gizatasun osoa» oparitzen digutenekiko mirabekeriarekin uztartzen ditugu. Aldi berean, ez gara gu geu, elbarriok, nabarmentzen bereziki pertsona ezgaituon normaltasunaren aldeko borrokan, gure ingurukoak baizik. Sarritan, senide eta lagunek ezgaitasuna gordean utzi eta normaltasun-itxurak eginarazi nahi dizkigute. «Nik ez dut uste ezgaitua zarenik» eta antzekoak esaten dizkigutenean, asmo onez izanik ere, elbarritasuna ezkutatzera behartzen gaituzte.

Ezgaituari inolako ezgaitasunik izango ez balu bezala biziarazten zaionean, ingurukoek ez dute beren aurreiritziak gainditzeko beharrik. Esate baterako, pertsona batek bere protesia ezkututzen badu ere, arropak erantzten ikusi duten guztiek eta ezgaituak berak badakite gorputz-atal bat falta zaiola. Hala ere, litekeena da protesia jendaurrean aldatzen hasiz gero, norbaitek hori gaitzestea, edo ezgaituak begirada desegokiak jasan behar izatea.

Horrez gain, itxurakeriak eta ingurukoaren egonezina leundu nahi izateak ondorio kaltegarriak eragin liezazkioke ezgaituari: pertsona horrek bere bizipenak alde batera utzi eta herritar abstraktu baten nortasuna har lezake, hau da, ustez ingurunera arazorik gabe egokitzen den pertsonaren nortasuna har lezake. Ezgaituak alde batera uzten ditu bere bizipenak gizartearen mesedetan, bere burua maite duen gizartearen, gizarte tolerantetaren, gizabidezko gizartearen, giza eskubideak errespetatzen dituen gizartearen mesedetan. Hala ere, inork ez du jokoaren arauak aldatzeko inolako asmorik, arau horiek giza eskubideen eta gizarteak herritarrekiko dituen konpromisoen erakusle baitira. Modu honetara labor genezake ezgaitasunarekiko jarrera hori: «Pertsona bat zarela onartuko dugu, ahal duzun neurrian pertsona normalen modura jokatzen duzunean. Baina ez ezazu pentsa gure bizimodua, burokrazia inpersonala eta norbanakoen eskubide abstraktuak aldatuko ditugunik gu geu zure desberdintasunera egokitu gaitzen. Zure ezgaitasuna zure arazoa da, eta gure laguntza lortu nahi baduzu, ahalik eta jarrera normalena izan behar duzu kosta ahala kosta. Normaltasunez jokatzea ezinezko gertatzen bazaizu, egoera hori ahalik azkarren konponduko dugu zure desberdintasuna nabarmenegia izan ez dadin. Gainera, badakigu jokabide hori gure sentiberatasunaren erakusle dela».

Unibertsitatean ikasle nintzelarik, eta doktoratu aurreko eta ondorengo ikerlanetan nembilela, nik neuk ere aurre egin behar izan nien irakasleen eta ikaskideen errezelo eta mesfidantzari: «—Garun-lesioduna izanik, nola iritsi ote da uniber-

tsitatera?, —Nola lortu ote du doktoretza?, —Non eman ote diote beka?». Sarritan, paternalismoaren edo ni atseginez hartu nahiaren menpean, honela mintzo zaizkit: «—Asko ikasiko zenuen, ezta?». Horrela mintzo direnak ez dira ohartzen esapide horiekin gutxietsi egiten dutela delako ikasle edo ikertzailea. Ezgaitasuna aztertzen dihardut Gizarte Zientzien ikuspegitik, eta egoera hori paradoxikoa gertatu ohi da. Zenbait kasutan, lankideak ez dira nire aztergaia bestelako zapalkuntza batzuen maila berean kokatzeko gauza; beste batzuetan, lankideek nire ikerlanaren aldeko jarrera erakutsi ostean, jarrera teoriaran on hori erabat antzu eta huts bihurtzen dute bat-batean, bazkaltzen hasi eta otorduetako portaera-arauak tarteko, garun-perlesiadunak, hots, nik, elikatzeko zailtasunak ditudanean.

Aurrerakoitzat jotzen ditugu maila administratiboan «errespetuzko» esapideak erabiltzen dituzten politikariak, eta esapide horietan aipatzen diren pertsonen gizatasuna defendatzen dutenak. Esate baterako, *Etxebidek* «egoiliar» deitzen ditu egoitzetara eta eguneko zentroetara joaten diren pertsonak, baina termino neutro horren bidez, pertsona horien ahultasuna eta jasaten duten giltzapetzea ezkutatu nahi izaten dute. Beren egoera ezkutatzeko medikuntza- eta administrazio-terminologia neutro eta errespetuzkoak erabiltzeak egoitzetako krudeltasuna ezkutatzea dakar; eta, ondorioz, eragotzi egiten zaio gizarteari egoera zintzo eza-gutu eta apaltasunez onartzeko aukera. Era berean, niri «ezgaitu» deitzea ekiditeko —baina ezin dugu ahaztu ezgaitua naizela—, zenbait esapide politikoki zuzen erabiltzen ditu jendeak: «mugikortasun-arazoak dituen pertsona», «jaiotzetiko hemiparesia duen pertsona» edo «jatorri neurologikozko mugikortasun-arazoak dituen pertsona». Norbaitek argudia lezake autonomia-erkidego guztiek dituztela eraikin publikoetarako irisgarritasun-arauak, bai eta erreserba-kuota bat ere. Hala ere, kontuan izan behar dugu sarritan arauok ez direla betetzen, eta ezgaituen kopurua biztanleriaren % 8koa izanik, erreserba-kuota ez dela % 2koa baino. Horiek horrela, aipatzekoa da egokitzapenak ez datozela eskariekin bat, eta oreka eza kuantitatiboa ez ezik, kualitatiboa ere badela. Legegintzako testuek ez dute ezgaitasuna diskriminazio-iturritzat jotzen. Zenbait elkartek baino ez du egoera hori bere gordinean aipatzen. Gizartearen mezua oso garbia da: ingurune fisikoan zenbait kontzesio egingo ditugu, baina aurreiritziak izateko eta integrazioa oztopatzen dituzten jarrerak izateko eskubidea dugu.

3. Indarkeria sinbolikoa eta *queer* teoria

People First Language elbarri gizatasuna azpimarratu nahi du, baina finean ez du gizatasunaren eta elbarritasunaren arteko haustura analitikoa handitzea baino lortzen. Elbarri eskaintzen digun aukera bakarra elbarri ez bagina bezala jokatzeko da: gure elbarritasunak ezkutatzera gonbidatzen gaitu, gainerakoan aurreiritzietatik babesteko asmoz. Aurrenekoa behin esanda, geure buruari galde-tu beharko genioke zer dela-eta guk geuk, elbarriok, horrenbestetan defendatzen dugun *People First Language*.

Pierre Bourdieu soziologo frantsesak dominazio-harremanak ikertu zituen 60ko hamarkadan. Haren aburuz, dominazio-harreman jakin bat posible izateko boterea pairatzen duenak eta besteengan eragiten dutenek ukitze-puntu bat izan behar dute. Menderatze-prozesu horrek eragina izan dezan, eta dominazioa gauzatu dadin, jokoan dauden pertsona guztiek zentzu eta jardueren espazio bera partekatu

behar dute. Mundu-ikuskera horrekin batera, ohitura, aldez aurreko jarrera eta erresistentzia multzo jakin bat osatzen da, zeinekin besteekiko indarkeria eragiten den; pairatzen dutenek berberak ere sistema sinboliko bat osatzen dute taldearen barnean, zeinaren arabera indarkeria naturalizatu egiten den. Fenomeno horri izena ematen dio «indarkeria sinbolikoaren» kontzeptuak:

esa coerción que se instituye por mediación de una adhesión que el dominado no puede evitar otorgar al dominante (y, por lo tanto, a la dominación) cuándo sólo dispone para pensarlo y pensarse o, mejor aun, para pensar su relación con él, de instrumentos de conocimiento que comparte con él y que, al no ser más que la forma incorporada de la estructura de la relación de dominación, hacen que ésta se presente como natural (Bourdieu, 1999, 224).

Indarkeria sinbolikoa pairatzen duena ez da horretaz erraz ohartuko, ezta indarkeria eragiten duena bera ere; izan ere, nola biktimak hala menderatzaileak, bi-biak jazarpen-egoera naturalizatu egiten duen sistema sinboliko berberaren baitako kide dira.

Indarkeria sinbolikoa, pairatzen duenaren hobe beharrez egiten dena da. Ildo horretatik, *People First Language* pertsonak garela argi eta garbi uzteko asmoz, benetako pertsonak inolako elbarritasunik ez daukatela azpimarratzen du. PFLK limosna gisa ematen digu ezgaituoi gainerakoei berez aurreuposatzen zaien gizatasuna. Ezgaitasuna medikuen eskuetan uzten dugun gorabeheratzat hartzea, norberaren inguruabar indibidual bihurtzen da, eta galdu egiten da, ezkutatu nonbait, zapalkuntza jasaten duen gorputzean eragiten duten mekanismo sinboliko eta kultural elkarren artean uztartuen multzoa. Ezgaitasuna inolaz ere inor baino gutxiago bihurtzen ez gaituen gure ezaugarri hutsa baino ez dela diotenen fraseologia bera darabilte ezgaituok pertsonak garela beren buruei behin eta berriz errepikatzeke behar obsesiboa dutenek ere. Perfrasiaren sorginkeria bitarte, beren aurreiritzien erantzule egin nahi gaituztela esan behar da. Baina ez da izendapen-arazo hutsa, ezta arazoa noren ardurapeko den erabakitzerakoan egindako akats ezdeusa ere. Azken batean, gainerako pertsonak bezalakoak garela ulertzeko arazoak dituztenek, gainerakoek bezala jokatu behar dugula uste dute, «beste edozein bezalako» izatera gonbidatzen gaituzte, gure berezitasunari uko egin ahal izateko eskura ditugun bitarteko terapeutikoak baliatuz. Prozedura kirurgiko mingarri eta sarritan eraginkortasunik gabeak eta kutsu moralizatzailez jantzita «geure mugak gainditzeko» omen diren errehabilitazio-saio amaiezinak... horiek guztiak ezgaitua beste pertsona bat (agian *inoiz izango ez dena* edo *izan nahi ez duena*) bilakatzeko ahaleginak baino ez dira. Gizarteak beretzat hori nahi izateak (nahiz eta, ez dezagun ahantz, «gure mesedetan» omen den) ez du berez eta nahitaez posible, beharrezko edo desiragarri bihurtzen.

Hori dela-eta, elbarriok geureganatu egin behar dugu ezgaitasunaren hizkuntza. Eta hori egiteko agian gay eta lesbianen mugimenduari (GLBT) begiratuko behar genioke. Horrela uste dute AEBko elbarriek, *queer* teoriaren aldekoek bezalaxe, beren buruaz aritzeko elbarritasunarekiko erabili izandako terminologiarik iraingarriena erabiltzen dutenean.

Horrela gauzak, eta *queer* teoriaren aldekoek oso ondo dakiten moduan, ezgaitasunari buruzko terminologia zaharkitu eta iraingarriena berreskuratu eta

geureganatzea, gizarteari ezgaitasunaren inguruan darabilen indarkeria sinbolikoa itzultzeko bide gerta daiteke. Geure burua «hankamotz», «besamotz», «trinkin», «paralitiko» eta antzeko terminoekin definitzea, ironiaren bitartez gu normalizatzeko eta gure desberdintasun berariazko eta erabakigarria gainditzeko saio gogo onekoak ezeztatzen diren ekimen politiko bihurtzen da, bai eta ezgaitu izango ez bagina bezala tratatuaz lausengatu nahi gaituztenengandik geure burua defendatzeko ere.

Bibliografia

- Bordieu, P. (1999): *Meditaciones Pascalianas*, Anagrama, Bartzelona.
- EMAKUNDE (1988): *El lenguaje, más que palabras. Propuestas para un uso no sexista del lenguaje*, Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer, Vitoria-Gasteiz.
- Foucault, M. (1980): *El nacimiento de la clínica: una arqueología de la mirada médica*, Siglo XXI, Mexiko DF.
- , (1984): *Historia de la sexualidad, Vol.I La voluntad de saber*, Siglo XXI, Madril.
- , (1991): *Historia de la locura en la época clásica, Vol. I*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko.
- Frutos, I. eta Rodríguez Aparicio, P. (2007): *Guía para un uso no discriminatorio del lenguaje en el entorno de la discapacidad*, FUNDABEM Avila, [esteka honetan eskuragarri: <http://www.imagina.org/archivos/lengua_discrim.htm#2._La_realidad_existe_seg%C3%BA_n_se_nombra_>].
- Haraway, D. (1996) "Situated Knowledges: The Science question in Feminism and the privilege of partial perspective", in J. Agnew eta D. Livingstone (2001), *Human geography, an essential anthology*, Blackwell Wiley, 108-130.
- Linton, S. (1998): *Claiming disability: knowledge and identity*, New York University Press, New York.
- Morris, J. (1991). *Pride against prejudice: transforming attitudes to disability*, New Society, Philadelphia Pa.
- Moscoso, M. (2009) "La normalidad y sus territorios liberados", *DREIA Dilemata: Revista internacional de éticas aplicadas*, 1, (1. urtea), 57-70, Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Madril, <<http://www.dilemata.net/revista/index.php/dilemata/article/viewArticle/5>>.
- ONU, Oficina del Alto Comisionado (2010): *Vigilancia del cumplimiento de la convención sobre los derechos de las personas con discapacidad. Guía para los observadores de la situación de los derechos humanos. Serie de capacitación profesional*, 17. zk., United Nations New York [esteka honetan eskuragarri: <http://www.ohchr.org/Documents/Publications/Disabilities_training_17_sp.pdf>].
- Snow, K. (2005): *Lenguaje que pone primero a la gente* [esteka honetan eskuragarri: <<http://www.sccoe.org/programs/inclusion-collaborative/docs/Spanish.pdf>>].
- Sobsey, D. (1994): *Violence and Abuse in the Lives of People with Disabilities: The End of Silent Acceptance?*, P. H. Brookes Editions, Baltimore.

